

MODESTA



IPUIÑA

Modesta zan neskacha guztiz moduzkoa,
 Umill, leun, argi eta beñ bere ez arroa;
 Begiraturik bere arpegi menera,
 Zirudian eukala aingeruarena;
 Baña, beste neskacha batek inbidia
 Eutsan, zalako danak ondo ikusia,
 Zeñek sarritan eutsan amari itauntzen:
 —¿Zergaitik dau Modesta jenteak maitetzen?
 «Juan Anton bere aita guztiz da okerra,
 »Prantziska ama barriz zital ta mukerra,
 »Senarrak egunero au badau zurretan,
 »¿Zelan dau alabea oso alabetan?»
 —«Zitaltasuna baño bai, ene umea,
 »Jakizu zelan obe dan umildadea;
 »Modestak modu onaz bendau badau aita,
 »Prantziskak aserratu oi dau agiraka,
 «Agaitik Juan Antonek laztan alabea
 »Beti dau, eta zurrau oi da emaztea».

*Ondo egiñaz ontzen elefantea da,
 Makillaz eskuatu iñoz ezin dana.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

